

SOKA ARTEAN

Iraitz Ugalde Pikabea, 13 urte

Lezo

Marionetak, panpinak...
agindutakoa bete behar dutenak,
besteek esandakoa sinetsi behar dutenak
iritzirik ez dutenak,
irrintzirik bota ezin dutenak.

Marionetak, panpinak...
kexatu ezin direnak
poza, tristura, haserrea adierazi ezin dituztenak,
sentimenduak zer diren ez dakitenak,
oraina besterik ezagutzen ez dutenak.

Marionetak, panpinak...
Zergatik ez, ordea, egun batez,
sokak hautsi, ozenki hitz egin,
sumatu, sentitu, gozatu, maitatu,
oraina iragan bihurtzen den unean,
etorkizunari begiratu.

A zer ametsa!
Baina jostailuen kutxan esnatu naiz,
gaur ere, egunero bezala,
nire sokei lotuta.